

Bizilagun maitea:

Zugana jotzen dugu, beste urte batez, datorren urterako gure desiorik onenak helarazteko, baita zure Udalaren jarduera zurekin partekatze ere.

laz bidali genizun gutunean garai hartan bizi genuen osasun-egoera aipatzen genuen, oso zaila baitzen. Gaur, urtebete geroago, txertaketari eta guztion erantzukizunari esker, egoera hobean gaude. Beraz, hasteko, egindako ahaleginari balioa eman nahi diogu, fruituak eman baititu. Hala ere, egia esan, oraindik ez dugu pandemia gainditu eta zuhurraz izaten jarraitu behar dugu.

Puiuko Udalaren jarduerari dagokionez, 2021 honetan 2019an eta 2020an hasitako lanarekin jarraitu dugu. Lan handiko urtea izan da, pandemiak udal-jardueran eragin dituen zenbait zailtasunekin batera, eta pixkanaka sendatzen ari gara.

Hauek dira **2021EAN EGINDAKO PROIEKTUAK:**

- **Trujalean markesina eraikitzea:** Nafarroako Gobernuak erabat diruz lagundua.
- **Sansoain Ibaiko baratzeak konpontzea:** Nafarroako Gobernuak ordaindu eta eginga.
- **Txantrea eta Malatxo kaleetan barandak jartzea,** oinezkoen segurtasuna hobetzeko.
- **Eliza Kalea konpontzeko obra:** obra hori egiten ari dira, eta oso garrantzitsua da bizilagunen oinezkoen segurtasunerako, hormigoia oso higituta baitzegoen eta hainbat erorketa eragin baitzituen. Kalea galtzagorri bihurtuko da.
- **Udal eraikinetako LEDerako argi aldaketa:** % 85eko diru-laguntza Nafarroako Gobernuaren eskutik.
- **Eskoletako eta igerilekuetako tabernako ateak eta leihoak berritzea:** Nafarroako Gobernuak % 85eko diru-laguntzarekin.
- **Energia-auditoretza eta argiteria publikotik LEDera aldatzeko proiektua:** aurretiko bi lan dira, etorkizunean eta faseka, argiteria publikoa LEDera aldatzeko.
- **Udal frontoiaren obra-proiektuaren** behin betiko diseinua
- **Bankuak jartzea** parkean eta hondakindegia zaharrear.
- **Reuelta del Toroko begiratokia konpontzea.**
- **Balorazio Ponentziaren eguneratzea.**
- Pandemiaren bilakaeraren arabera egin ahal izan diren **jarduerak:** zine-foruma, Nafarroako nortasunari buruzko erakusketa, abuztuaren 15aren oroitzapena, Gloria Fuertes buruzko hitzaldia eta haurrentzako tailerra, M8aren oroitzapena, zuhaitzaren eguna, etabar.
- **Udako jardueren programa.** Pandemiaren ondorioz 2021eko Jaiak bertan behera utzita, Udalak Udako Programa bat prestatzearen aldeko apustua egin zuen, adin guztietako pertsonentzako kultura-, kirol- eta aisialdi-jarduerak barne har zitzakeena eta, horrela, egoera hori leuntzeko. Programa honen emaitza hain izan da positiboa, beste urte batzuetan errepikatu nahiko genukeela, jaiak egon ala ez. Hauek izan dira egin diren jarduerak: kontzertuak The Guateq, Trikidantz, Mariachi Los Cazahuates, La Cuerda Floja, Alba eta Nerearekin edo emanaldiak Txaranga Turrutxiki eta Gaiteroekin. Kronoeskalada, Krosa, 2019an eta 2020an jaiotakoei zapiak jartzea eta

haurrentzako jarduerak ere egin ziren, hala nola pailazoak, uretako puzgarriak, haurrentzako txalupak, karsak, ludoteka, jolasak eta espuma festa. Erlaxazio eta indar klaseak, mus eta briska txapelketak edo pilota partidak.

- **Gabonetako jardueren programa.** Olentzero, Erregeak, haurrentzako tailerra, Gabonetako Kontzertua eta udalekuak.
- **Erdialdeko bidezidorren sarea.** Erdialdeko Partzuergoa proiektua gauzatzen ari da. Dagoeneko esleitu dira bai trazadurarako obra bai komunikazio-plana, eta, beraz, 2022an proiektu hori errealitate bat izango dela aurreikusten da. Puiuko Udalak diseinatutako ibilbideari «iturriak, begiratokiak eta historia» izena eman zaio, eta proiektua gauzatzeko ardura dutenek oso ondo baloratu dute; izan ere, gure herriko punturik erakargarrienak zeharkatzen ditu, Puiun ditugun iturrien garrantzi bereziarekin.
- **Gizarte-zentroan egindako jarduerak.** Pilates, mantentze gimnasia, ingelesa, plastika, udalekuak, etab.
- **Komunikazioa hobetzea.** Web orria sortu eta udal egoitza elektronikoa berritzeaz gain, udal informazioa bidaltzeko WhatsApp kanal bat sortu da. Gogorazten dizuegu zerbitzu hau aktibatu dezakezuela "ALTA + IZENA ETA ABIZENAK" hitza 681903184 zenbakira bidaliz eta telefono zenbakia mugikorrean gordez. Instagram profil bat ere sortu dugu (@ayuntamientodepueyo).
- **Orbaibarko Tokiko Agenda.** Orbaibarko herri guztiek agenda bateratu bat egin dugu, etorkizunean landu beharreko hainbat ardatz eta proiektuekin. Udal horiek guztiek zenbait behar eta proposamen bateratzearen aldeko apustua egin dugu. Premia eta proposamen horiekin, Tokiko eta Hiri Agendak direla-eta aterako diren laguntzetara aurkeztuko gara, eta laguntza horiek Europar Batasunetik datozen *Next Generation* fondoekin bultzatuko dira. Orbaibarko Agenda egoera onean dago eta Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioak proiektu pilotu izendatu du. Beraz, gainerako udalekin lanean ari gara ildo horretan.
- **Beste lan txiki batzuk.** Puiun lehen egutegi parte-hartzailea egin dugu, Udalerako ordenagailu berri bat erosi dugu, telefonian hobekuntzak egin ditugu, atezain automatiko bat jarri dugu, autobus-ordutegiak prestatu ditugu, bideak etengabe mantendu ditugu, Nafarroako Gobernuak Puiuko N121a konpondu du, eta N121era erortzeko arriskua duten makalak eta pinuak kendu ditugu, besteak beste.

Jarraian, legegintzaldi honi geratzen zaion urte eta erdirako **PROIEKTU NAGUSIAK** zehaztuko ditugu:

- **Frontoia eraberritzea.** Nahiz eta gure asmoa obra hau 2021ean hastea izan, pandemiak eragindako materialen prezioaren urritasunak eta igoerak proiektua nahi bezala prestatuta edukitzea eragotzi digu. Aldi berean, elkarrizketa batzuen ondoren, 40.000 euroko enmenda bat sartzeari lortu dugu 2022ko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan, frontoiaren barnealdea konpontzeko, Geroa Bai talde parlamentarioari esker. Horrela, itxaronaldi txiki honekin lortu dugu, Udalak frontoia estaltzeaz gain, barnealdea eraberritzeari ekitea Nafarroako Gobernuaren kontura. Beraz, 2022an proiektu hau, azkenean, errealitate bat izango da.
- **Gizarte Zentrorako altzariak** erostea.
- **Hilerrian kolunbario gehiago** jartzea.

- **Udal Artxiboaren antolamendua.** 2022an jarduera honen lehen fasea burutuko dugu, eta 2023an bigarrena. Antolamendu hori, gainera, euskarri digitaleko datuak eta artxiboan informazioa biltzen eta bilatzen laguntzeko beste jarduera batzuk biltzean datza.
- Orbaibarko herri guztietako bizilagunak garraiatzeko **Kudea go aplikazioa instalatzea.** Aurrerago, Ibarreko udalerrri guztien artean adostu den proiektuaren berri emango dugu.
- **Udal-ordenantzak** etengabe eguneratzea eta hobetzea.
- **Argiteria publikoa LEDera aldatzea.** Gaur egun, argiteria LEDera aldatzeko bi lan egiten ari gara: auditoria energetikoa eta proiektua. Argindarraren prezioaren igoerarekin, jaietako aurrekontuaren erdia igoera hori ordaintzeko erabili behar izan dugunez, ezinbestekoa da aldaketa hori egitea, eta faseka egingo diogu aurre, aterako diren diru-laguntzen arabera.
- **2016an erretako haritz eta arteen hektareako resalbeo lanak.**
- **Etxebizitza.** Puiun salerosketa, alokairua eta etxebizitza berrien eraikuntza errazteko hainbat jarduera bultzatuko ditugu. Hainbat ildo lantzen ari gara: etxebizitza-poltsa propioa sortzea, birgaitze-laguntzei buruzko informazioa ematea, Nasuvinsarekin batera lan egitea, hiri-lurzoruko eta lurzoru urbanizagarriko lursailen jabeekin harremanak izatea Puiuko hirigintza-garapena errazteko, etabar. Zorionez, gazte asko ditugu, berandu baino lehen Puiun bizitza eraiki nahiko dutenak, eta egoerari aurrea hartu behar diogu. Hala ere, ez da lan erraza eta hausnarketa sakona eskatzen digu epe laburrean.
- **Valdetina Parke Eolikoa.** Udaletik etengabeko harremanetan gaude proiektu hau sustatzen duen enpresarekin, eta uste dugu proiektua gauzatzuz gero oso ona izango dela herriarentzat. Hala ere, oraindik urratsak egin behar dira, eta, egingo balitz, legegintzaldi honetan oraindik ez lirateke obrak hasiko.
- **PIL berria** (Toki Inbertsioen Plana). Nafarroako Gobernuak PIL berri bat egingo du 2022ko lehen hiruhilekoan. Puiuko Udaletik borrokatuko dugu bertan gure herriarentzat ditugun proiekturen bat sar dadin.

Hala ere, horiek ez dira Puiuk dituen erronka bakarrak, baina bai premia-koenak. Badakigu lan asko dagoela egiteko. Legealdia irratzen zaionak hasitako bideari eutsiko diogu, gogoia eta ilusioa berrituta.

Bestalde, datorren urterako egutegi bat entregatzeko aprobetxatzen dugu. Puiuko lehen egutegi parte-hartzailea da, helarazi dizkiguzuen argazki askoren artean aukeratutako 14 dituenak. Eskerrik asko parte hartzaile guztiei!

Bide batez, eskerrak eman nahi dizkiegu egiten ditugun lanetan laguntzen diguzuen bizilagunei. Zuen lanak ilusio berarekin lanean jarraitzera bultzatzen gaitu. Zuekin gaude, ditugun erronkei aurre egiten jarraitzeko.

Azkenik, azken urte honetan utzi dizkiguten bizilagunak gogoratu nahi ditugu. 2020 eta 2021 oso urte gogorak izan dira, ez bakarrik pandemiaren ondorioz izan ditugun galerengatik. Gure oroitzapenik zintzoena guztiei.

Udalak, 2022rako konbentzituta, aurreko biak baino urte hobea izango dela, honako hau opa dizugu:

EGUBERRI ON ETA URTE BERRI ON!



Ayuntamiento de Pueyo
Puiuko Udala